

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5502

*2253/2023 EBAZPENA, azaroaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez hutsik uzten den Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintzarako deialdia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Erdi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Ingeniari Teknikoa kategorian (Mantentze Lanetako eta Instalazioetako Erdi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala).*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1312/2021 Ebazpenaren bidez, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Erdi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Ingeniari Teknikoa kategorian (Mantentze Lanetako eta Instalazioetako Erdi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 16ko 577/2023 Ebazpenaren bidez (maiatzaren 31ko EHAA 102. zk., abuztuaren 9ko 1085/2023, Ebazpenaren bidez aldatua –irailaren 7ko EHAA 171. zk.–), Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko eskaintza argitaratu zen, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Erdi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Ingeniari Teknikoa kategorian (Mantentze Lanetako eta Instalazioetako Erdi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinaren 9. oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik (erabaki horren bidez onartzen dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko prozeduraren oinarriak), Zuzendaritza honi jakinarazi zaio iragarritako zikloan ez dagoela eskatzailerik Ingeniari Teknikoa kategorian (Mantentze Lanetako eta Instalazioetako Erdi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala).

Horregatik, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hutsik uztea Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintzarako deialdia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Erdi Mailako Ingeniari Teknikaria kategorian (Mantentze Lanetako eta Instalazioetako Erdi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala). Deialdi hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 16ko 577/2023 Ebazpenaren bidez egin zen.

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren web-orrian eta EHAA-n argitara dadin agintzea.

Hirugarrena.– Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta

2023ko abenduaren 12a, asteartea

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteke epea izango da, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 22a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.